

OLABARRI

4628

Etxeak edateko urez hornitzeagatik kobratu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

Kontzeju honek, 2010eko apirilaren 18ko bilkuran, edateko urez hornitzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Horrako hori jendaurrean jartzen da, interesdunek kontzejuaren aretoan aztertu, eta egoki deritzeten erreklamazioak eta oharrak egiteko aukera izan dezaten. Erreklamazio eta oharrak idatziz egingo dira, eta horretarako hogeita hamar egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtu dela esan nahiko du.

Olabarri, 2010eko ekainaren 30a.– Lehendakaria, FELIX LÓPEZ DE TORRE.

AXPURU

4649

Etxeak edateko urez hornitzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzari behin betiko onarpena ematea.

Kontzeju honek, 2006ko ekainaren 1eko bilkuran, etxeak edateko urez hornitzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren espedienteari hasierako onarpena eman zion. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da. Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 eta 111. artikuluek eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16. artikulua ezartzen dutenaren ildotik, ordenantzaren aldaketa oso-osorik ematen da argitara, indarrean jar dadin.

I.- Xedapen orokorra**1. artikulua.**

Kontzeju honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, etxeak edateko urez hornitzeko zerbitzuagatik kobratu beharreko tasa ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

II. Ordaintzeko betebeharra**2. artikulua.**

Instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen dituztenek daukate ordaintzeko beharra.

III. Zerbitzua**3. artikulua.**

Erabiltzaileen edo harpidedunen eta toki-administrazioaren arteko harremanak ekonomiko-administratiboak izango dira, zerbitzuak erabiltzen duen kudeaketa-sistema edozein dela ere, eta herritarren beharrak asetzeko erabiltzen dituen langileak eta instalazioak zerbitzura atxikitzeko era zeinahi dela ere.

4. artikulua.

Administrazio batzarrak antolatuko du zerbitzua, eta publizitatea emango dio antolaketa horri; izendapen-agiriak emango zaizkie zerbitzura atxikitako langileei, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten eta horren bermea izan dezaten. Zerbitzuaren obrak eta instalazioak jabetza publikoaren ondasunak dira, eta administrazio batzarrari dagokio ondasun horiek inbertsio planen bidez areagotzea. Plan horiek, bestalde, zerbitzuaren ur emaria handitzea eta ur horien kalitatea hobetzea izango dute helburu.

OLLÁVARRE

4628

Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por suministro de agua potable.

Este Concejo, en sesión celebrada el día 18 de abril de 2010, acordó la aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa por suministro de agua potable:

Lo que se expone al público a efectos de que los interesados puedan examinar el expediente en la Sala de Concejo y presentar por escrito las reclamaciones y sugerencias que estimen oportunas, durante el plazo de treinta días a contar desde el siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOTHA

En el caso de que no se presentara ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

En Ollávarre, a 30 de junio de 2010.– El presidente, FELIX LÓPEZ DE TORRE.

ASPURU

4649

Aprobación definitiva de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por Suministro domiciliario de Agua Potable.

Habiendo sido aprobado inicialmente por este Concejo, en sesión celebrada el día 1 de junio de 2006, el expediente confeccionado para aprobar la Ordenanza fiscal reguladora de la tasa por suministro domiciliario de agua potable, y no habiéndose presentado reclamaciones durante el periodo de su exposición al público, queda definitivamente aprobado. Por lo que se lleva a cabo la publicación íntegra de la modificación para su entrada en vigor, a efectos de lo establecido en el artículo 70.2 y 111 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, y en el artículo 16 de la Norma Foral 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales.

I. Disposición general**Artículo 1.**

Este Concejo, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Alava, establece y exige la tasa por suministro domiciliario de agua potable con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

II. Obligación de contribuir**Artículo 2.**

Están obligados a contribuir quienes utilicen los aprovechamientos de instalaciones y servicios.

III. Del servicio**Artículo 3.**

Las relaciones entre los usuarios o abonados y la Administración Local tendrán carácter económico administrativo, cualquiera que sea la forma de gestión del Servicio que ésta escoja para la prestación del mismo, y con independencia de la fórmula de adscripción del personal y de las instalaciones que la misma utilice para satisfacer las necesidades de la población.

Artículo 4.

La Junta Administrativa organizará el Servicio y dará publicidad a la organización del mismo, otorgando credenciales a las personas adscritas al mismo para conocimiento y garantía de todos los usuarios. Las obras e instalaciones del Servicio son bienes de dominio público, correspondiendo a la Junta Administrativa el incremento de estos bienes mediante planes de inversiones que tiendan en todo momento a aumentar el caudal de las aguas destinadas al Servicio y a perfeccionar la calidad de las mismas.